


Pluton helburu

Estatu Batuetako NASA, errusiarrak eta frantsesak elkartu egin dira mende honen amaieran Plutonera 110 kiloko bi zunda bidaltzeko proiektua bultzatzearen. Elkarlanean aritzea komeni zaie, batetik proiektuaren kostua 600



Estatu Batuetako NASA, errusiarrak eta frantsesak elkartu egin dira mende honen amaieran Plutonera 110 kiloko bi zunda bidaltzeko proiektua bultzatzearen.

milioi dolarretik 400 milioira jaitsiko litzatekeelako, eta bestetik teknikoki abantailak izango litzuketelako. Errusiarrek, zundak modulu batzuek hornituko litzukete, Plutoneren eta bere satelite den Txaron-en pausatzeko. Frantsesek, irudiak konprimatzeko sistema hornituko lukete.

Ida eta bere laguntzailea

Argazkian ikusten den objektua, 56 kilometro luzeko Ida izeneko aste-



Argazkian ikusten den objektua, 56 kilometro luzeko Ida izeneko asteroide ezaguna da. Inork espero ez zuena, ordea, satelite bat izatea da. Argazkian eskuinean ikusten da aipatu satelitea.

roide ezaguna da. Inork espero ez zuena, ordea, satelite bat izatea da. Argazkian eskuinean ikusten da eta 1,5 kilometroko diametroa du, hain zuzen. 1993-243-l izena ipini diote eta hau da asteroideei aurkitu zaien lehen satelitea. *Galileo* zundak bere Jupiterreranzko bidean iazko abuztuaren 28an ateratako argazkia da.

urriaren 6an *Titan 4* jaurtigailuaz espaziora bidaltzekotan dira. Lehenbizi Artizarretik igaroko da eta planeta hau hurbiletik ikusteko aukera bi aldiz izango du (1998.go apirilaren 21ean eta 1999.go ekainaren 20an). Jupiter ingurura 2000. urteko abenduan helduko da, eta Saturnora 2004.go ekainean.


Saturnon 2004.ean

Estatu Batuetan Saturnora *Cassini* izeneko zunda bidaltzeko proiektua burutu dute. Zunda honek bere bidaian Huygens modulu europarra Titan-era (Saturnoren satelite nagusietako batera) bidaliko du bide batez, hango atmosfera iker dezan. Proiektuak kritika handiak izan ditu Estatu Batuetan, kostu handia duelako. Hala ere, *Cassini* zunda 1997.eko

Clementine zundaren irudiak

Bi metroko luzera eta 400 kiloko pisua besterik ez duen *Clementine* zunda espaziala Ilargiaren

Bi metroko luzera eta 400 kiloko pisua besterik ez duen *Clementine* zunda espaziala Ilargiaren irudi bikainak bidaltzen ari da. Argazkiko irudiak lekuko.



irudi bikainak bidaltzen ari da. NASAK urtarri-lean jaurtitako zunda honi errendimendu handia ateratzen ari zaizkio, 75 milioi dolar kostatu dela kontutan hartzen badugu.

Jupiterrera bidaltzeko *Galileo* zundaren ondoan arrakasta handia izan du Ilargira bidaltzeko honek. *Galileo* izan ere, askoz ere garestiagoa izan da eta matxura ugari izan du. *Clementine* zundak ia eginkizun guztiak beteak ditu. Oztopo bakarra, *Geographos* asteroidearekin elkartu ezina izango da, Ilargiko maniobretan programazio-akats batzuk medio erregai falta izango duelako.

